


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,3 gehitu ziren 2014ko urtarrilean aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearen aldean, 2013ko urtarrilaren aldean, eraikuntza kostuak %0,4 gutxitu ziren

2014ko urtarrilean, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,3 gehitu zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,4 gutxitu, EUSTATen datuen arabera.



Lan-eskuaren kostua %1,8 gehitu da eta lehengaien kostuak %0,2 gutxitu dira, aurreko hilaren aldean.

Urtarrilean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,1eko jaitsiera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,3koa. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,8 gutxitu dira eta Obra Zibilekoenak %1,8.

Urteko prezioetan (2014ko urtarrila 2013koaren aldean), kontsumitu diren lehengaietan prezio-igoera handienak izandako sektoreak: Energia elektrikoa eta gasa (%3,1), Zurgintza (%1,9), Ez-metalezko industria (%1,9). Eta prezio-jaitsierarik handienak: Metalurgia (%-5,1), Petrolioa fintzea (%-5,1), Material elektronikoa (%-2,7).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK. 2014KO URTARRILA (p)

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m / m-1	m / m-12	m / abendua
GUZTIRA	103,0	0,3	-0,4	0,3
ERAIKINAK	102,8	0,3	-0,2	0,3
OBRA ZIBILA	104,0	0,2	-1,0	0,2
LEHENGAI A	102,4	-0,2	-1,0	-0,2
ERAIKINAK	102,1	-0,1	-0,8	-0,1
OBRA ZIBILA	103,6	-0,3	-1,8	-0,3
LAN-ESKUA	105,4	1,8	1,8	1,8

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua